



AUZO-EZTABAIDAGUNEAREN LABURPENA

2. TXANDA. 2018

SANDUZELAI

Data:	2018/12/11
Ordua:	18:30 – 20:30
Lekua:	Sanduzelai ikastetxe publikoa
Auzoko zinegotzia:	Aritz Romeo
Parte-hartzaileak:	30 lagun (21 gizon, 9 emakume)
Alorreko erreferentziako teknikaria:	Ana Etxaleku, Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduzko Alorreko teknikaria
Moderatzailea:	Maitane Urmeneta, Herritarren Parte-hartzea dinamizatzeko Zerbitzua

Gai zerrenda:

1. Irekiera.
2. Udala berriemaile:
 - a. Erdigune:
 - i. O-ko plaza (patinodromoa) berrurbanizatzeko proiektua
 - ii. Proiektua, Juaristi doktorearen kalean merkataritzako, oinezkoen eremuko eta igarobide jasangarriko ardatza eratzeko.
 - b. Sanduzelaiko Komunitate Poliziaren informazioa.
 - c. Auzoko komunitate-proiektu berriei buruzko informazioa.
 - d. Pamplona-Iruña! Hiri Plan Estrategikoa. 2030
 - e. Iruñategi – Gizarte-ehunaren mapa.
3. Auzoa berriemaile: Urbanas Kolektiboa.
4. Udala adi.
5. Amaiera.



Irekiera

Maitane Urmeneta Herritarren Parte-hartzea dinamizatzeko Zerbitzuko teknikariak ongi etorria egin die bertaratutakoei eta Udaleko zinegotziei.

Aurkezpenean zenbait kontzeptu garrantzitsu aipatu ditu, eztabaidan kontuan hartu beharrekoak, hala nola honako hauek:

- Herritar aktibo gisa izena emateko aukera, horretarako bertaratuen eskura jarritako fitxetan.
- Haurrendako ludoteka-zerbitzua erabiltzeko aukera, 4 eta 12 urte bitarteko haurrak bertan egon daitezen eztabaidagunea gauzatu bitartean. Hori erabiltzeko, aurreko asteko asteleheneko 20:00ak baino lehen jakinarazi behar da.
- Bertaratuei jakinaraztea saioa Herritarren Partaidetzako eta Gizarte Ahduntzako Alorraren YouTube kanalaren bidez streaming-en ematen dela. Berritasun gisa, jakinarazi da proposamenak eta galderak egin daitezkeela Erabaki plataformaren bidez (erabaki.pamplona.es); online parte hartu ahalko da egun horretako 19:30era arte, hori baita gerora bateratze lana egin ahal izateko muga-ordua.

Ohar horiek partekatuta, eztabaidagunearen egitura azaltzeari ekin zaio.

- **Udala berriemaile:** Aritz Romeo auzoko zinegotziaren eskutik.
 - a. Erdigune proiektua azalduko du:
 - i. O-ko plaza (patinodromoa) berrurbanizatzeko proiektua.
 - ii. Proiektua, Juaristi doktorearen kalean merkataritzako, oinezkoen eremuko eta igarobide jasangarriko ardatza eratzeko.
 - b. Sanduzelaiko Komunitate Poliziaren informazioa.
 - c. Auzoko komunitate-proiektu berriei buruzko informazioa.
 - d. Pamplona-Iruña! Hiri Plan Estrategikoa. 2030
 - e. Iruñategi – Gizarte-ehunaren mapa.

- **Auzoa berriemaile.** Urbanas kolektiboko kide batek hitz egiten du.
- **Udala adi.** Mikro irekiko txanda hasi da, eta bertaratu guztiek aukera izan dute zinegotziari egokitzat jotzen duten oro proposatu, galdetu eta kontatzeko.



Udala berriemaile

Aritz Romeo auzoko zinegotziaren parte-hartzea

Romeo zinegotzia hasi da hizketan, Erdigune proiektuaren baitan egiten ari diren proiektuak auzoari itzultzeari buruz; proiektu hori NUPek eta Iruñeko Udalak egin dute elkarlanean.

Herritarren partaidetzako prozesuen bidez proiektuari egindako alde zuzenaren diagnostikoa aurkeztu du, ardatz hartzen dituen hala O-ko plazaren urbanizazioa nola horren kokapena auzoaren sarreraren gisa inguruko auzoetatik zein ibai parketik.

Azaldu ditu egindako proposamenak leku hori inguru zentral bilakatzeko: oinezkoendako eremua eta auzoko txikiei zuzendutako plaza, auzoa biziberritzea (eta, batez ere, aipatu koadrante hori) eta inguruko auzoetarako eta hiriko erdigunerako loturak hobetzea.

Horretaz gain, Juaristi doktorearen kalean merkataritzako, oinezkoen eremuko eta igarobide jasangarriko ardatza eratzeko proiektuaren berri eman du: merkataritza-espazio bat eta eskolabide segurua, joan-etorriak eta haurrak eskoletara joateko bideak erraztuz.



Oinarrizko proiektua aurkeztu eta gero Romeok azaldu du patinodromoaren proiektua bi proiektutan zehazten dela:

- Parke gune bat eraikitzea.
- Gridillas etxeak eraistea eta eraikin berria eraikitzea.

Zinegotziak aipatu ditu, baita ere, auzoan izandako beste ekitaldi eta obra batzuk, besteak beste, hauek:

- Juaristi doktorearen kaleari loturiko lurpeko pasabidea.
- Maiordomoen igoera berreskuratu izana.
- Umetxeko erraldoien pista.
- Iparralde institutua.
- San Jorge IPn egindako inbertsioak.
- Sanduzelai IPn egindako zaharberritze-lanak.
- Biurdanako komunak.
- Ibaiertzean jaialdia,

Aipatu ditu, halaber, auzoan etorkizunean izanen diren beste hobekuntza batzuk:

- Civivoxeko fatxadak konpontzea.
- Konponketa-lanak San Jorge IPn.
- Sanduzelai IPn egindako zaharberritze-lanak.
- Zaldaina auzoa Orkoienekin lotzen duen biribilgunean.
- Esku-hartze orokorreko proiektuak (fatxadak,...)
- Karrikagune: hobekuntzak eta Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioa erregularizatzea.
- Konpost komunitarioa auzoko eremu guztietan.

Sanduzelaiko Civivoxari buruz, Romeok ordutegiei eta euskararen erabilerari buruz dauden arau berriak jakinarazi ditu.



Auzoko lorategiei buruz, informazioa eman da Tximeleta Proiektuari buruz, Trinitarios inguruko zuhaixka-lorategiari eta auzoko ikastetxeek horietan duten inplikazioari buruz, ingurumen hezkuntzaren arloan txertatu baita. Horretaz gain, aipatu da ale berriak landatu direla eta artelatz batzuk zaharberritu direla. Ikerketa-fasean dago kostu baxuko parke bat eratzea, bizilagunen parte-hartzearekin, Villa Mirandako lursailetan.

Agurtzeko, Romeok auzoko bizilagun eta kolektiboen inplikazioa nabarmendu du, Sanduzelaiko aberastasunik handienekotzat eta auzoa eraikitzeko motortzat hartuta, eta, Udalaren ordezkari den aldetik, egindako lana eskertu du Iruñeko Udalaren partetik.

Juan Castro Sanduzelaiko komunitate-poliziaren parte-hartzea

Bere parte-hartzean, Castrok aipatu ditu azken urtean auzoan egin dituen jarduketa nagusiak, helburu hartuta herritarrek bere lana eta bere zerbitzuaren ezaugarriak ezagut ditzaten.

Hala, lehenik eta behin aurkeztu ditu bere lanari loturiko datu batzuk, besteak beste lan egindako egunak eta orduak, eta gero lan-jardun bateko ohiko lanak azaldu ditu. Horien artean aipatu ditu auzoan egindako ibilbidea, bide publikoan ikusitako gabeziak apuntatzea, elkarteei eta merkataritzari egindako zuzeneko arreta eta zuzeneko koordinazioa patruilatze-zerbitzuekin.

Gero, Castrok Karrikagune Zentro Komunitarioan egin dituen jarduketa nagusiak xehatu ditu, eta nabarmendu du haur, nerabe eta gazteriaren alorrean Umetxearekin izandako elkarlan estua, Kultur Koordinakundearekin besteak beste feria-gunerako leku berria aurkitzeko egindakoa, eta beste eragile batzuekin izandakoa, besteak beste Sanduzelai peñarekin, Guraso Elkarrekin eta Auzo Elkarrekin, bestelako behar eta arazoetarako.

Hezkuntzako zentroekin izandako elkarlanari dagokionez, ireki berri den Iparralde zentro berria aipatzeaz gain, komunitate-poliziak adierazi du bertako arduradun eta profesionalekin elkarlanean aritzen dela elkarbizitza-arazoak suertatzen direnean. Horretaz gain, beste jarduketa batzuk ere aipatu ditu, besteak beste honakoak: Sanduzelai Ikastetxe Publikoan autobusarendako leku erreserbatuko gunea ezabatzea, txosten bat egitea, Haur Eskolak berak eskatuta eta izan diren istripu batzuen ondoren, bertako sabai-leihoei buruz; txostena Nafarroako Gobernura bidali da.




Azaletik komentatu ondoren beste establezimendu batzuekin dagoen koordinazioa (esate baterako banku eta supermerkatuekin), Castrok bereziki azpimarratu du orain dela gutxi whatsapp talde bat sortu dela, berrogei merkatari baino gehiagorekin, helburu duena jakinaraztea, ahalik eta azkarren, iruzur edo engainurik gertatzen bada. Gaineratu du tresna horrek balio duela, baita ere, harekin komunikatzeko edozein zalantza edo arazoren aurrean. Berrikuntza hori aipatu eta gero, Castrok aipatu ditu farmazietan eta ostalaritzan egin dituen bisitaldi eta jarduketak; horietan lan-agindu ezberdinak aktibatzen ditu antzemandako gertakari edo arazoaren arabera.

Ondoren, Castrok bere lanean beste baliabide batzuekin egiten duen lanaren ezaugarriak azaldu ditu, besteak beste honako hauekin: Auzo Unitatearekin, non elkarlan tekniko eta laguntzako egiten den (batzuetan poliziaren egote hutsarekin); finken administrazioekin, bitartekaritza lanetan eta arazoak eta gertakariak konpontzen; administrazio publikoekin, besteak beste Haur eta Nerabeendako Arreta Lantalde, Nasuvinsa eta Mankomunitatearekin, zeinarekin elkarlanean ari baita lau aparkaleku aldatzeko; beste udal-zerbitzu batzuekin, non lan egiteko modua aldatu baitu tokiko burutzekin zuzenean aritzeko, Osasun Etxearekin, bertako gizarte langilearekin elkarlan estua eginda; Civivoxarekin eta Liburutegiarekin. Komunitate poliziak azaldu du, baita ere, futbol-zelaietan (Kirolak) eta igerilekuetan (Aquavox) egiten duen lana. Lehenengoari dagokionez, kontatu du pasa den urtean, udako txapelketa batean izan zen egoera problematiko bat konpondu dela. Igerilekuari dagokionez, aipatu du ia guztiz deuseztatu direla bertako instalazioetan izan diren lapurreta eta gizalagearen kontrako jarrerak, zaintza eta kontrol plan bati esker.

Ikuspuntu kuantitatibotik begiratuta, ikusi da aurten Sanduzelai auzoan izan diren 1.078 esku-hartzeak era askotakoak izan direla. Ondoren, Juan Castrok mugikortasunaren gaia hartu du ardatz. Atal honetan, bertaratuei zenbait proiekturen berri eman die, besteak beste, esku-hartze bat egingen dela Tasubinsako aparkalekua hobetzeko, bai bertarako sarbidea bai edukiera hobetzeko helburuz, Fleming doktorearen eta José Alonso doktorearen kaleen arteko orubea aparkaleku gisa egokitzeko proiektua, eta Kaiko kalerako sarbidea ADIFFeko geltokitik debekatzea, norabide bakarreko egin eta aparkatzeko leku gehiago jarrita.

Parte hartzea amaitzeko, Castrok publikoki eskerrak eman ditu “Zerbitzu Goraipagarrien Domina” jasotzeagatik, Sanduzelaiko kolektibo eta bizilagunek eskatuta emandakoa, eta esan du hori dela-eta “*oso harro eta oso eskertuta*” sentitzen dela.



Xabier Errea Iruñeko Udaleko Estrategia Bulegoko kidearen parte-hartzea

Komunitate poliziak parte-hartzea amaitu ondoren, Xabier Errea Udaleko Estrategia Bulegoko teknikariak hartu du hitza, eta azaldu du zertan den Pamplona-Iruña 2030 Hiri Plan Estrategikoa, zer ekarriko dion hiriari eta nola har daitekeen parte auzoetatik.

Testuingurua emateko helburuz, Estrategia Bulegoko teknikariak definitu du plan estrategiko bat zer den, hau da, tresna bat hiriaren etorkizunari buruz pentsatzeko, helburu duena gaur egun dauden edo epe erdi edo luzera izan daitezkeen erronkak eta arazoak identifikatzea. Halaber, zailtasun horiei aurre egiteko hiriak dituen indargune eta aukerak identifikatzeko balio du. Plan horiek etorkizunerako diseinatu nahi den hiri-eredua adostea bilatzen dute, eta helburu hori lortzeko jarraitu beharreko bidea zehazten dute. Azken batean, plan estrategiko batek bilatzen du etorkizunerako zer hiri-eredu nahi dugun zehaztea, adostasunez, modu parte-hartzailean eta alor politikotik haratago, herritarren, eragile sozial eta ekonomikoen eta instituzioen elkarlanaren bidez. Adibide moduan aipatu dira Bartzelona, Bilbo eta Donostia, horiek erreferente baitira, estatu mailan, metodologia horren ezarpenean.

Plan estrategiko hau sustatzeko eta etorkizunerako nahi dugun hiri-eredua zehazteko hiri plangintza estrategikorako prozesu baten buru aritzeko motibazioa Iruñeko Udalaren nahiaz sortu da, baieztatu du Erreak.

Ondoren, Xabier Errea teknikariak zehaztasun gehiago eman ditu Pamplona-Iruña 2030! Hiri Plan Estrategikoari buruz:

- Zer ekartzen du? Hiriaren beraren plan bat da, zeinerako epe luzerako konpromisoa behar den herritarren eta eragile sozialen partetik; baina beharrezkoa da, baita ere, konpromiso politikoa, legegintzaldien eta eztabaida alderdikoien gaintetik egon behar duena.
- Zertarako? Eraitza orokorrek eragina izanen dute batez ere garapen ekonomiko eta sozialean, lankidetzaren publiko-pribatuaren sustapenean, herritarren partaidetzaren sustapenean eta hiriaren estrategia orokor eta integralean.
- Non? Aplikazio-esparrua Iruña hiria da, baina kontuan hartuko da, beti, Iruñerriko metropoli-eremua, Nafarroako erkidegoaren testuingurua eta estatuko eta Europako testuingurua.
- Noizko? Denborari dagokionez, plana 10 urterako proiektatu da, 2020 eta 2030 urteen artean. Tarte horretan epe labur, ertain eta luzerako helburuak diseinatuko dira. Horretaz gain, epe horrek aukera ematen du NBEaren 2030 Agendarekin eta garapen jasangarriko helburuekin bat egiteko.
- Nor? Eragileak: Lidergoa Udalarena da, Alkatearen bidez. Horretaz gain, sektore publikoa, sektore pribatua, elkarte-ehuna eta herritarrak ere dira eragileak.
- Nola? Erabili beharreko metodologia hiriaren beraren errealitatearekin eta nortasunarekin bat dator. Iruñeari dagokionez, hiriak dituen eta izanen dituen erronka eta desafioak identifikatzen hasiko da. Ondoren, diagnostiko sakona egingen da gai kritikoei buruz, eta, gero, prospektibako eta etorkizunean izan daitezkeen eszenatokiak eratzeko lana egingen da, azkenik planifikazioa eta proiektuen, programen eta jarduketaren diseinua egiteko. Azkenik, plana bete eta horren segimendua egingen da.

Erreak bereziki azpimarratu du Plan Estrategiko honetan parte hartzea, batez ere diagnostikoaren fasean, benetako aukera dela auzoentzat. Arazo eta gai kritikoak identifikatu eta gero, lurraldearekin lotuko dira, jakiteko horietako zein dagoen errotuago auzo bakoitzean. Horretarako, lurraldearen araberrako lan-espazioak sortuko dira 2019ko otsail eta martxoan, eta horiek auzoei aukera emanen diete zuzenean lan egiteko hala gai kritiko horien analisisian nola horiei aurre egiteko proiektu eta jarduketan planifikazioan. Espazio horietaz aparte, beste bitarteko batzuen bidez ere parte hartzen ahalko da Plan Estrategikoan. Azaroan eta abenduan egin da inkesta, erabaki.pamplona.es online plataformaren bidez, PEU Foroaren saioetan (Plan Estrategikoan herritarren ordezkaritza handiena duen organoa), pamplona.es webgunean eta Twitter eta Facebook sare sozialetan.

Amaitzeko, Xabier Errea teknikariak bertaratuak gonbidatu ditu parte har dezaten gaiaren inguruan izan dezaketen edozein zalantza argitu edo iradokizun zein iruzkin egiteko.



Maitane Urmenetaren parte-hartzea, Iruñategi proiektuari buruz

Maitane Urmenetak, Herritarren Partaidetzako Alorretik, labur azaldu du zertan datzan Iruñategi proiektua. Baliabide sozial eta instituzionalen mapa bat da, urte betean egindakoa, Dinamizazio Zerbitzuak egindako landa-lan batetik abiatuta. Landa-lan horretan, elkarteak, kolektiboak, entitateak, herritarren ekimenak eta beste identifikatu dira. Guztira 2.000 baliabide ingururen mapaketa egin da gizarte-ehun eta ehun instituzionalaren artean, eta lan horren ondorioz 13 mapa eratu dira, auzo bakoitzeko bat. Sanduzelaiko mapari dagokionez, 91 entitate sartu dira, baliabide eta jarduera motaren arabera eta zer populazio-motari zuzentzen zaion sailkatuta.



Sanduzelai auzoko mapak Civivox zentroan, auzo unitatean eta Osasun Etxean daude. Deskargatu daiteke, pdf formatuan, asociaciones.pamplona.es webgunean, eta, gainera, proiektu horri buruzko informazioa aurki daiteke.

Auzoa berriemaile

Urbanas Kolektiboaren parte-hartzea


Marcela hasi da parte-hartzearekin, Ana lankideak lagunduta. Lehenik eta behin, bideo bat proiektatu dute “Jane Jacobs-en eskutik paseoan, Iruñean barna” izeneko proiektua azaltzeko, proiektu horren ordezkari baitira.

Proiektzioa eta gero, azaldu dute Nafarroako Berdintasunerako Institutuak eta Iruñeko Udaleko Berdintasun Alorrak diruz lagundutako proiektu bat dela. Eta kontatu dute, baita ere, paseoak egiteko, lehenik eta behin auzoko zenbait kolektiborekin topaketa batzuk egiten direla (horiei konplize deitzen diete), genero ikuspegiko urbanismoaren gaiaren inguruan.

Marcelak azpimarratu du paseo horiek Milagrosan abiatu zirela, eta Sanduzelaikoa bigarren esperientzia dela, lortutako diru-laguntzari esker egindakoa. Marcelak esan duenez, paseo horien helburua ez da auzoa zehatz ezagutzea, baizik eta auzoa beste perspektiba batekin ezagutzea, kasu honetan genero-perspektibarekin. Mundu osoan ezagunak diren “Jane Jacobs-en paseoak” deitutakotik hartutako metodologia da, eta honetan datza: auzo batean dauden pertsonen sentsibilitatea jasotzea –hala bertan bizi direnena nola bisitan etortzen direnena–, eta gauza positiboak eta hobetu daitezkeen puntuak adieraztea, ondoren ibilbide bat osatu eta horren arabera paseoa egiteko.

Une horretara iritsita, Marcelak eskerrak eman ditu auzoak proiektuan izan duen inplikazioagatik, eta pertsona eta kolektiborik inplikatuenetako batzuk aipatu ditu, horietako batzuk bertan ere baitziren. Esker ona adierazteko, Marcelak azaldu du Urbanas Kolektiboak jasotakoa itzuli nahi izan diola auzoari, eta genero-urbanismotik paseo horretan ikusi den guztia txosten batean jaso dela; txosten hori Aritz Romeo zinegotziari eman dio modu sinbolikoan.

Laburpen gisa, “konplizeekin” egindako bileretan komentatzeko eta bisitatzeko moduko 53 puntu interesgarri identifikatu ziren, baina paseoa inklusibo eta irisgarria egiteko, guztira 10 mugarri baino ezin izan zituzten markatu. Une horretan Ana Anguita Kolektiboko kideak hartu du hitza, eta markatutako mugarri bakoitzean hobegarri diren puntu guztiak irakurri ditu. Azaldu dute mundu osoan paseo horiek urtero egiten direla maiatzaren 5ean, eta hori dela-eta une hau aprobetxatu dute bertaratutako guztiei egun horretan ere paseoaz disfrutatzera animatzeko.



Udala adi

Maitane Urmeneta dinamizatzailleak ireki du bertaratuek parte hartzeko txanda, eta horrela hasi da “Udala adi” atala.

Bizilagun bat hasi da eta galdetu du komun publiko autogarbigarri bat jartzeari buruz, auzoko leku batzuetan komun publikoak oso urrun baitaude. Zinegotziak erantzun dio proposamena Hiri Ekologiako Alorrera bidali zela, halako komun bat paratzeko zenbait faktore hartu behar baitira kontuan.

Ondoren, bizilagun horrek berak galdetu du O-ko plazan dagoen desnibel bati buruz. Horri erantzunez, Romeok plaza horretan arazoa konpontzeko egiten den proiektuaren mapa erakutsi du. Azaldu du zenbait arkitekto egindako proiektua dela, eta plaza zehaztasunez aztertu dutela malda egokia izanen duen arrapala jartzeko.



Bizilagun horren azkeneko galdera Civivoxen garbiketak sortzen duen zaratari buruzkoa da. Oraingo honetan Castrok erantzun du, eta esan du ezinezkoa zela garbiketa zarata gutxiago eginen zuen modu batean egitea.

Beste bizilagun batek hartu du hitza eta galdetu du Urbanas kolektiboak proposatutako proiektuari buruz, Nafarroako etorbidearen parte bat lur azpira sartu eta oinezkoendako eremu handi bat eratzea proposatzen duena. Romeok azaldu du, aspaldiko eskaria bada ere, ez dela azterketarik bat ere egin esku-hartze hori egiteko. Erantsi du bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertu beharko liratekeela.

Romeok jarraitu du Erdigune alorrean eginen den proiektua azalduz: Burlataraino iristen den ardatz jasagarri bat sortuko du, Juaristi doktorearen eta José Alfonso doktorearen kaleetan barna, Trinitariosetik eta Arantzadi parketik igaro eta azkenik Laguntzako Andre Maria kalearekin lotuz. Igarobide jasagarri horrek eskola-bide seguruak sortuko ditu, auzoko koadranteak lotuko ditu eta erdi-oinezkoendako izanen da. Erantsi du proiektu hori oraindik hasteko dagoela eta 2019. urteko aurrekontuetan sartu beharko dela.

Une horretan, bertaratutako beste batek mikrofonoa hartu du eta komentatu du ez zaiola egokia iruditzen “Udala berriemaile” eta “Auzoa berriemaile” atalei eman zaien denbora, apenas ez baita denborarik geratu bertaratuen txanda irekirako. Ondoren, historikoki auzoak egin dituen eskariak aipatu ditu, Udalak erantzun ez dituenak. Esate baterako, Nafarroako etorbidearen eta San Jorge etorbidearen arteko bidegurutzeko lur azpiko pasabide zentralaren iskinean dagoen etxabe estaliaren mantenimendua. Auzokideak azaldu du Udalak zin egin duela etxabe berri bat eraikiko dela, baina oraindik ez da erantzunik izan.

Une horretan zinegotziak azaldu du Udalean erabaki zela portxe horiek inpermeabilizatzeko kostua oso handia dela eta konponketak zailtasun teknikoa ekartzen zuela. Beraz, proposatu zen kalitatezko plaza estali bat eraikitzea auzoko beste puntu batean.

Gai horren inguruan Udalak egindako lanekin ados ez zegoela adierazi eta gero, auzoaren beste eskari batzuk zerrendatu ditu, besteak beste Uko plazako iturria, aspaldi ari baitira jartzeko eskatzen eta ez baita erantzunik jaso.



Ondoren, aipatu du autoak gaizki aparkatzearen ondorioz oinezkoek segurtasun falta dutela, oraindik hori gertatzen dela auzoan eta konpondu gabeko kezka dela. Autoen mugikortasunaren harira, autoendako aparkaleku falta dagoela esan du, eta proposatu du Adif enpresaren eta Udalaren arteko hitzarmen bat egitea aparkatzeko tokiak zerbitzu publikoaren alde egon daitezzen. Semaforo gehiago ere eskatu ditu, autoen zirkulazioa hobetzeko.

Bizilagunak ohartarazi du negutegi-efektuko gasen isurketen eta kutsaduraren eraginei buruz, eta neurriak hartzeko eskatu du.

Ingurumeneko gaiekin jarraituz, bizilagunak eskatu du zuhaitzei buruzko ordenantza bat eskatu du, auzoan zuhaitzak falta direla sumatu baitu. Proposatu du zuhaitz ilara bat jartzeko Trenbideko kalean, etxebizitzaren aurrean trenen zarata gelditzeko.

Romeok erantzun du badela azterlan bat egina Hiri Ekologiako alorrean eta erabaki dela 35 zuhaitz landatzea.

Bizilagunak jarraitu du eta esan du badirela txakur-gorotz, zabor-poltsa eta tamaina handiko elementu asko abandonatuta edukiontzien ondoan. Neurriak hartzeko eskatu du.

Castrok hartu du hitza eta erantzun du lehenago ere hartu dela kontuan eskari hori, Mankomunitateari dei egin zaiola eta Mankomunitateak Trapuketariei deitu diela. Onartu du auzoko zenbait lekutan altzariak eta beste metatzen direla.

Une horretan Maitane Urmeneta teknikariak ohartarazi du aurreikusitakoa baino ordu erdi gehiago luzatu direla, eta eskatu du parte-hartzeak ahalik eta laburrenak izan daitezela.

Ondoren, bizilagun batek hartu du hitza eta galdetu du zer epe aurreikusi diren Auzo-
eztabaidagune honetan aurkeztutako hobekuntzak egiteko. Zinegotziak jakinarazi ditu Erdigune
proiekturako aurreikusitako epe eta faseak, eta esan du lanak 2019an hasi eta 2020an
amaituko direla.



Bizilagun batek eskertu du auzo-eztabaidaguneak egitea, baina azpimarratu du garrantzitsua dela denbora gehiago ematea Udala Adi atalerako. Hiru gai azaldu dizkio zinegotziari, hau da, gehiegizko abiadura hartzen dutela autoek Kaiko kalean, zalantzak dituela Iruñategiren baliotasunari buruz eta josteta aretoan izandako poliziaren esku-hartze neurrigabea.

Auzoan aurreikusi den haur-parkeari buruz, elkarte bateko kide den bizilagun batek adierazi du arduratuta dagoela gai horrekin, kirolerako espazioa izugarri murriztu delako eta aurreikusi delako zuhaitz handiak botako dituztela; gainera, auzorako eremu estali baten beharra adierazi du. Zinegotziak gogoratu du espazio honetan lehenago ere emandako datua, hau da, aurreikusi dela 35 zuhaitz landatuko direla, eta espazio estali bat ere jasota dagoela egindako proiektuan. Kirolguneari buruz, esan du auzoko biztanleekin elkarlanean egindako gogoeta eta ikerketa dituela oinarri.

Azkenik, auzoko beste herritar batek erantsi du adin txikikoen jokorako beste gune bat ere badela, poliziak esku-hartu duen horretaz gain. Horretaz gain, gogorarazi du institutuari buruzko aurreko proiektuaren aurkezpenean baieztatu zela kirolgunea auzoarendako eremua izanen zela. Gehitu du azkeneko auzo-eztabaidagunean igogailu bat eskatu zela Alde Zaharrarekin lotzeko, eta auzoan den futbol-zelaiaren kirol-instalazioen gainean. Azkenik, ekarpen bat egin du Santa Engraziako presari buruz, eta esan du aukera ederra galdu dela ibaia garbitzeko, bere ustez behar hori dago-eta.

Romeok adierazi du ibaiaren garbiketa Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren ardura dela.

Bizilagun batek hartu du hitza, azkenik, "Udala adi" atalean eta esku-hartze handiagoa eskatu du txakurren gorotzekin Zakurren Eremuetatik kanpo, batez ere Sandua pasealekuan. Horren aurrean zinegotziak esan du Udaltzaingoak baduela lan horretaz arduratzen den zerbitzu bat.



Bestalde, Erabaki partaidetza-plataformaren bidez bost proposamen aurkeztu ziren; proposamenak zinegotziari eman eta dagozkien alorretara bideratuko dira, erantzuteko:

- Erreformak: espaloietan, zoladuran, eta zutikako seinaleak pintatzea auzoko parte zaharrea.
- Simonena doktorearen kalea: zirkulazioaren noranzkoa aldatu beharko litzateke, edo oinezkoendako egin, Martin Azpilicueta kalea bezala.
- Autoa aparkatzeko irtenbideak bilatzea Civivoxaren eta tren geltokiaren inguruan.
- Irtenbidea aparkatzeko arazoari Civivoxaren eta tren geltokiaren inguruan.
- Nafarroako etorbidea, Simonena doktorearen kalearen atzealdea. BUS geltokia: Proposatzen dut lorategia txukuntzeko eta tabernari ohartaraztea sortzen dituen zarata jasangaitzei buruz.

Amaiera

Aritz Romeo auzoko zinegotziak amaitutzat eman du Auzo-eztabaidagunea, eta aipatu ditu Udalak egindako jarduketak, bereziki Polizia Komunitarioaren brigadaren sorrera.

Zentro. Espacio Colaborativo / Elkarlaneko gunea
Kondestable Civivoxa. Kale Nagusia, 2, 2. solairua. Iruña

948 420266

participacionciudadana@pamplona.es

participa.pamplona.es

erabaki.pamplona.es